

# Foru eta udal erakundeekiko usadiozko hiztegia biltzeaz, S.O.S.a

LIZUNDIA, Jose Luis

Euskaltzain urgazlea  
Euskaltzaindia  
Elkano, 5  
48011 Bilbo

BIBLID [1137-1951 (1996), 0; 104-105]

Benetan premiazkoa litzateke unibertsitateetako Zuzenbide Fakultateek beraien eremuetako euskararen atlasgintza gisako ikerketa berezi bat egitea, hots, euskaldunok, ahalik eta euskaldunik hutsenak, ia ia elebakarrak badira hobe, norberaren herrietan erabiltzen dituzten foru zuzenbideen inguruko eta udal erakundeekiko hitzak biltzea. Premia larrizko lana, zeren eta bestela urte gutxi barru galdua izango baita. Orotariko Euskal Hiztegi eta beste hiztegi asko, gehienbat testu idatzietan oinarrituak dira, eta nola gehienetan eliz gaiez, bertolaritzaz, herri literaturaz eta antzerakoez idatzi diren, ez dira hitz asko bildu, euskarak ofizialtasunik ez duelako izan, herrietako agintariek, adibidez, mendez mende ahoz erabili dituztenak.

Badira batzuk bilduak direnak: **batzar/batzarre, auzolan/auzalan**, baina ez gehiegi. Testu idatzien hustuketa gehiena, bestalde, eginga da. Baina, nork ezagutzen du adibidez, **etxebasoren** adibidea? Hara hor, eranskin gisa, zer bidali nuen Euskaltzaindiaren OEHko bulegora hitz hori sartzeko asmoz, sartu zuten, 7. liburukian<sup>1</sup>. Baina, adibide bat besterik ez da. Bizkaian eta Nafarroan zuzenbide pribatua indarrean egonik hitz mordotxo bat gordè da, ohiturazkoak, erdarara ez direnak askotan pasatu, adibidez: amankomunean, alkarporoso. Nork

ezagutzen du adibidez, administrazio hizkeran "acto de amojonamiento" delakoa? Bizkaian, **munarritze, munarri ikuste** eta abar bizirik daudèla oraindik. Frankismo garaian ere, alkate eta zinegotzi euskaldunek horrelako hitz asko erabiltzen zituzten, erdi galduta edo galtzeko zorian daude, ordea, euskara ofizialdu denean.

Guzti honegatik proposamen hau luzatzen dut: ez ote litzateke posible, zenbait puntu hartuaz, Iparralde ahanzi gabe, baina kontutan izanik, euskararen ofizialtasuna, Hegoaldean indarrean dagoela, bilketa sistematiko bat egitea? Hartuko nituzke pare bat herri, ahal denik eta euskaldunenak Bizkaian, adibidez, Lea-Artibai eskualdean, Euskal Autonomia Erkidegoko eskualderik euskaldunena berau eta beste eskualde batean. Araban, Aramaio Bizkaiko Foru Zuzenbidea duelako, Nafarroan, beste pare bat puntu, bata, Baztan inguruan, euskalkien desberdintasunagatik eta beste, gainontzeko Nafarroako ahalik eta euskaldun elebakarrenean. Gipuzkoan ere, nahiz eta zuzenbide pribatua indarrean egon ez, komeniko litzateke pare bat puntu hartzea, bereziki udal erakundeetara begira, baina zuzenbide pribatukoak ere erabili izango zirelako, bakanak bederen. Probintzia honetan eskualde bi ikusten ditut garrantzitsuenak, Toloserria bata, eta bestea Debarroa, euskalkien

1. MITXELENA, L. *Orotariko euskal hiztegia*, VII. liburukia, 524 or.

ETXEBASO izenaz: Etxebaso izena Durangaldean òso hedatua da eta agian Bizkaian beste toki batzuetan ere izan daiteke. Honek esan nahi du mendietan izaten diren basoak herri basoak dira batzuk, alegia, udalarenak edo antzina partzuergoarenak —Oizen ez dago gaur egun partzuergorik, bakoitzak bereak bai ditu— eta gero baserri-etxe zenbaitzuri lotutako basoak. Beraz, hemen baso pribatu eta publikoen artean dago kontraposizioa. Adibide zehatzago bat jartzeko, Abadiñok baditu herribaso ugari: "Urkiolabasoak", bereziki, gero sei kofradia edo auzo nagusietako baserriak bere etxebasoak dituzte, adibidez Astolamontorrean baserri hauen etxebasoak daude nik dakidala behintzat: Etxenagusia, Garratzekoa, Garratzeko-etxebarri, Landa, Trañagoitia, Narrubi, Trañabarrena, Traña-etxoste, Marrageru, Trañajauregi, Trañagoxe-askoa, Perulanda, Trañaerrotta eta Arzubiarrenak. *Baserri-etxeak* eta ez *baserriak* ez bai dute esanahi berbera eskualdean. Baserria da etxea soro, landa eta abar. Baserrietxea ordea, etxea bakarrik. P.D.: Rosa Mari Arza lankide den Ihorretako Arriandi auzotarrak, berak ere ezagutu ditu bere baserriari zegozkion *etxebasoak*, hain zuzen Boldrobaso deritzan mendian.